

ARAUDIA BETETZEA ETA TALDE KONTROLA

Compliance Kudeaketa Ereduaren laburpena



kutxabank



Edukia

1. Sarrera	3
2. Printzipio orokorrak	3
3. Compliance kultura	5
4. Compliance sistemaren kudeaketa	6
4.1. Etengabeko kontrola eta gainbegiraketa	8



1. Sarrera

Kutxabank, S.A. (aurrerantzean, «Kutxabank»), kreditu finantza erakunde gisa, erakunde arautzaile desberdinen ikuskapenaren menpe dago, baita erakunde mota hauei aplikatzen zaien araudiak ezartzen dituen askotariko antolamendu arau zorrotzen menpe ere.

Haien jarduera garatzen den testuinguruan, funtsezkoa da legeak, arautze-betekizunak, industriaren kodeak eta antolakundearen arauak betetzen direla gainbegiratzea, baita gobernantza onaren arauak, oro har onartutako jardunbide onenak, etika eta komunitatearen itxaropenak ere, horiek ez betetzeak administrazio-zehapenak, erantzukizun penalak edo ospelkalteak ekar baititzake. Modelo honek aldika berrikuspenak eta eguneraketak izaten ditu arlo honetan prebentzio-sistema etengabe hobetze aldera.

Ildo horretan, Kutxabanke bere langileek eta bankurako lan egiten duten pertsona guztiek iruzurrezko eragiketak edo eragiketa desegokiak egitea prebenitzeko prozedurak eta kontrolak ditu. Compliance Kudeaketarako Ereduak erakundearen sor daitezkeen arrisku penalak ditu ardatz, eta horiek gutxitzeko, neurriak eta kontrolak ezartzen ditu, eta erakundeko maila guztiei aplikatzen zaizkie jarduketa eta kontrol neurriak.

Gainera, joeran eraginez Erakundeko kide guztiengan izango du eragina, administratzaileak, zuzendariak eta langileak barne.

Bere kontrolpeko erakundeei dagokienez, Kutxabanke betetzeak kudeatzeko eredu espezifikoak har ditzaten sustatuko du.

2. Printzipio orokorrak

Erakundearen ezarritako Compliance Penal Kudeaketarako Ereduaren printzipioak hauek dira:

1. Indarrean dagoen legeriaren, jokabide kodearen, diligentzia printzipioen, jokabide arau aplikagarrien eta Entitateari aplikatuko zaizkion barne eta kanpo araudien arabera jardutea.
2. Prebentzioaren kultura korporatiboa sustatzea eta legez kontrako edo iruzurrezko egintzak ez onartzea, etika eta portaera arduratsuaren printzipioen aplikazioa sustatzearekin batera.
3. Une oro kontrol sistemak eraginkor, iraunkor eta eguneratuak bermatzea.



4. Kutxabanken hartzen diren jarduketa eta erabaki guztiek helburu hauetarako ezarritako barne arauak, prozedurak eta protokoloak betetzen dituztela gainbegiratzea, eta baita dagozkien kontrolak ere bai.
5. Printzipio orokor hauek aplikatzeko bitarteko eta baliabide egokiak ziurtatzea delitu posibleak edo arau urratzeak prebenitzeko edo detektatzeko.
6. Egokiak eta neurrikoak diren prestakuntza jarduerak egitea, arlo horretako ezagueren eguneratzea eta enpresako etika kultura bat eta Legea betetzearen kultura bat garatzeko moduko nahikoa maiztasunarekin.
7. Printzipio orokor hauen aplikazio eremu barruan dauden pertsona fisiko edo juridiko guztien erantzukizuna ezagutzera ematea *compliance* arloko legeen kontrako jokabide potentzialen zaintzari dagokionez. Bereziki, euren kargura langileak edo lan taldeak dituzten pertsonak arloko legeen kontrako jokabideak prebenituko dituzte eta, horrelakorik gertatzekotan, ahal bezain laster eta prestasun handienarekin joko dute helburu hauetarako eratutako organo eta prozesuetara.
8. Printzipio orokor hauen eremupeko pertsona guztiei jakinaraztea delitua, iruzurra edo irregulartasuna izan litekeen edozein gertakari ezagun jakinarazteko betebeharra.
9. Momentu oro legeria aplikagarria betetzearen kultura sustatzea, salatzaileen konfidentzialtasun eta babes berme egokiekin, arrisku eta/edo irregulartasun posibleen jakinarazpena ahalbidetzeko, helburu horretarako ezarritako barne kanalen bitartez, prebentzio ereduaren funtzionamendua eta errespetua gainbegiratzeko ardura duen organismoari.
10. Ustezko delituak izan litezkeen gertakariak lehenbailehen ikertzea, edozein kasutan ere ikerketan parte hartzen duten pertsonen eskubideak bermatuta.
11. Zigor arloko delitu posibleekin lotutako barne arau hausteen aurreko diziplina araubidea ezagutzea, barne araudiaren eta aplikagarriak diren legeen arabera.

Printzipio orokor horiek *compliance* helburu orokorrak osatzen dituzte, eta **compliance** helburu espezifikotik gauzatzen dira. Helburu horiek urtero zehazten dira Araudia Betetzeko Urteko Planean (Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari aurkezten zaio). Plan horrek, beraz, Entitatearen jardueren, produktuen eta zerbitzuen ondoriozko *compliance* betebeharrak identifikatzen ditu eta haren operazioetan izan dezakeen inpaktua ebaluatzen du. Hala, Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Arlotik, mekanismo formal bat dugu, urteko aldiroko tasuna duena, hurrengoetarako:



- *Compliance* betekizun berriak identifikatzea eta/edo haiek aldatzea etengabe betetzen direla ziurtatzeko.
- Identifikatutako aldaketen inpaktua ebaluatzea eta *compliance* betekizunen kudeaketan identifikatutako edozein aldaketa barnertzea.

Halaber, helburu espezifikoaren definizioan eragina duten barne eta kanpo aldaketak gertatzen badira Entitatean, Araudia Betetzea eta Talde Kontrola sailatik aldaketak egin daitezke Plan horretan, eta, hala, une oro jaso daitezke Entitatearen egoera eta aldaketa horien ondorioz *Complianceri* dagozkion betebeharrak.

3. Compliance kultura

Compliance kulturak agerian uzten du arauak betetzearekiko eta jokabide etikoarekiko konpromiso maila egokia. Zentzu horretan, erakundeak *compliance* kultura erakundearen maila guztietan garatzen, mantentzen eta sustatzen du.

Entitatean Compliance kultura dagoela egiaztatzeko, ekintza hauek garatuko dira:

1. Portaera etikoaren estandar komuna finkatuko da gobernu organoentzat, goi zuzendaritzarentzat eta erakundeko gainerako kideentzat.
2. Erregistratzea gobernu organoek eta goi zuzendaritzak era aktiboan errespetatzen eta ezartzen dutela *Compliance* Kudeaketarako Eredua.
3. Langile potentzialei ebaluazio egokiak egitea kontratazioaren aurretik, hautagaiek zigor arloko arriskuen prebentziorako erakundearen ezarri diren printzipioen eta jarduketa arauen edukia eta garrantzia ulertzen dituztela ziurtatzeko, eta Entitatearen Compliance arriskua prebenitzeko.
4. *Compliance*en helburu orokorrak eta erakundearen balioak sartzeko langile berriei zuzendutako hastapen eta orientazio profesionaleko programetan eta gobernu organoetara, goi zuzendaritzara eta Kutxabankeko beste lanpostu gakoetara sartzeko harrera eta prestakuntza programetan.
5. Etengabeko prestakuntza planak Entitateko kideentzat.
6. *Compliance*aren inguruko etengabeko komunikazio irekia.
7. Jarduera ebaluatzeko sistemetan, *compliance* jokabidearen balorazioa kontuan hartzea.



8. Compliance organoak aldizka berrikuspenak egitea.

4. Compliance sistemaren kudeaketa

Taldearen araudia betetzeko eta kontrolatzeko arloa, ekimenerako eta kontrolerako ahalmen autonomoak dituen, izango da Compliance organoa, eta Compliance Kudeaketarako Ereduak funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura izango du.

Arauen Betetze Funtzioaren eta Taldearen Kontrolaren Estatutuak ezartzen ditu arautzen dituen printzipioak, besteak beste, independentziarena. Hala, zereginak **zuzentasunaren**, **zorrotasunaren**, **proporzionaltasunaren** eta **kritikotasunaren** parametro egokien pean burutzen ditu eta ezarritako mekanismoen bitartez sor daitezkeen **interes gatatzak kudeatuz**.

Gainera, esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko behar adina baliabide tekniko eta giza baliabide ditu eta funtzioak garatzeko beharrezko informazio guztia du erabilgarri.

Compliance arloko betetze sistemaren kudeaketa ereduak zazpi funtsezko oinarri ditu:

- Arrisku dokumentatua kontrolerako eredu: eredu sendoa izan dadin, ekimen eta kontrol ahalmen autonomoak dituen organo bat behar da, ezarritako prebentzio ereduaren funtzionamendua eta betetzea gainbegiratzeko eta zigor arriskuak prebenitzeko jarduerak arautzen dituzten eta kontrolak ezartzen dituzten politikak, eskuliburuak eta prozedurak formalizatzeko.
- Arriskuen ebaluazioa: ebaluazioaren helburua da identifikatzea jarduerak, zeinen arloan prebenitu beharreko delituak egin daitezkeen, eta zaintza eta kontrol neurriak hartzea.
- Hedapena, komunikazioa eta prestakuntza: ezagutzea eta zabaltzea compliance arriskua prebenitzeko eredu, baita erakundeetako langileei, zuzendariari eta Entitatearen Gobernu Organoetako kideei prestakuntza eta informazio planak ezartzea ere, barneko araubidea betetzen dela bermatzeko.
- Finantza baliabideen kudeaketa: Baliabideen kudeaketa egokia ezinbestekoa da *compliance* kudeaketa sistema sendo bat sortzeko.
- Barne informazio sistema: Jakinarazpenak arautzen dituen arau esparrua, modu konfidentzian eta errazean, Jokabide Kodea ez betetzea eta/edo delitu penal bat egitea ekar dezaketen legez kanpoko jarduerak eta jokabideak detektatzeko. Barneko informazio-sistemak ezaugarri hauek ditu:



- Barne kanala da, erakundeetako langile guztien eskura baitago, eta kanpoko ere, hirugarrenen eskura baitago.
- Arau hauste posibleen jakinarazpena edo salaketak modu anonimoak egin daitezke edo pertsona identifikatuta.
- Komunikazioak posta elektronikoz edo posta arruntez egingo dira.
- Kanalaren kudeaketak informatzailearen segurtasuna eta jakinarazitako gertakarien konfidentziasuna bermatzen ditu.
- Kezkak planteatzeko sistema: Barneko informazio-sistemaz gain beste kanal batzuk ere badaude, *complianceari* buruzko kezkak planteatzeko aukera ematen dutenak, eta horrek bermatzen du kontsultak edo komunikazioak espektro zabalean egin ahal izatea.
- Diziplina sistema: diziplina araubide bat barne arau hausteak kudeatzeko, barne araudien eta legeria aplikagarriaren araberakoa dena.
- Etengabeko kontrola eta gainbegiraketa: Compliancearen kudeaketa sistema egoki bat izatea ez da eraginkorra izango ereduaren aldizkako egiaztapenak eta etengabeko berrikusketak egiten ez badira mantentze lanek hala eskatzen dutenean edo Entitateetan, kontrol egituran edo Entitatea jarduten den testuinguruan aldaketak gertatzen direnean. Compliance Kudeaketa Sistemarako beharrezkotzat jotzen den barneko eta kanpoko informazio dokumentatua Compliance Organoak kontrolatu behar du.

Compliance arriskua prebenitzeko gobernantza esparrua osatzen duten dokumentuak hauek dira:

- Compliance sistema kudeatzeko eredu.
- Jokabide kodea.
- Zigor arloko betetzeak kudeatzeko eredu.
- Ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako politika.
- Administrazio publikoekin jarduteko protokoloa.
- Baloreen merkatuaren arloko Jokabidearen Barne Araudia
- Aktiboak Zaintzeko Politika
- Interes gatazken kudeaketaren Gidalerroak
- Política Best Execution



- Salaketak egiteko kanal etikoaren funtzionamendu eta kudeaketarako prozedura
- Kapital Zuritzea eta Terrorismoaren Finantzazioaren Prebentzio eskuliburua

4.1. Etengabeko kontrola eta gainbegiraketa

Compliance arriskuaren prebentzio ereduaren kudeaketaren ardura Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Sailak du, eta urtero bigarren defentsa lerro gisa, betetzen direla arriskuaren kontrol eredia gainbegiratzen du.

Ereduaren berrikusketak egiten dira ere, edozein kasutan, legeetako aldaketek edo erakundeko aldaketek hala eskatzen dutenean. Azkenik, gertakari baten gauzatze kasuan ere berrikusi behar da eredia.